BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

735

AGINDUA, 2012ko otsailaren 8koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuarena. Honen bidez, dei egiten zaie Irakasleen Etengabeko Prestakuntzarako Plana garatzeko proiektuak aurkeztuz sail honekin batera lan egin nahi duten erakunde publiko eta pribatuei.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari dagokio unibertsitateaz kanpoko irakasleak prestatzeko agintzea eta irakasle moduan prestatzeko duten eskubidea eta betebeharra jagotea, lanbide-premien arabera behar bezala eta behar besteko kalitateaz presta daitezen, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren III. tituluko III. kapituluan jasotzen denez.

Horregatik, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak irakasleak prestatzeko plana egiten du urtero. Plan horretan, alde batetik, prestakuntza-proposamenak egin ditu, unibertsitateaz kanpoko irakasleen lan-gaitasuna hobetzearren, eta, zehatz esateko, hezkuntza-sistema hobetzearren; eta, beste alde batetik, bideak irekitzen ditu irakasleek beren lanean sumatzen dituzten beharren eta egiten dituzten eskaeren araberako prestakuntza etengabea emateko.

Plana erabat definitzeko eta, batez ere, plana abian jartzeko, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, bere zerbitzuez gain, zenbait erakundek lagundu eta parte har dezan behar du. Prestakuntzaren arloan aritzeko duten gaitasuna guztiz onartuta izan behar dute erakunde horiek; izan ere, horrek bermatuko du helburuak beteko dituela planak.

Agindu honen bitartez, plan honetan parte hartzeko interesa duten erakunde guztiei egiten diegu dei proiektuak aurkez ditzaten, kontuan hartuz 2012-2013 ikasturteko jarduera-esparruak eta prestakuntza-ikastaro eta ekintzak; proiektu horiek aurkezteko moduak eta epeak ezartzen dira, proiektuak aukeratzeko prozesuak finkatzen dira, eta argitara ematen dira proiektuak hautatzeko irizpide eta arduradunak. Halaber, prestakuntza-jarduerak zein baldintzatan burutuko diren ere adierazten da.

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Deialdiaren xedea.

1.– Euskal Autonomia Erkidegoan irakasleak prestatzeko lanetan ari diren edo horrelako lanetan aritzeko prest egongo liratekeen erakunde publiko eta pribatu legez eratutakoei dei egitea, unibertsitatez kanpoko Irakasleak Etengabe Prestatzeko Plana garatzeko proiektuak aurkez ditzaten; Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailarekin lankidetzan aritzeko proiektuak izan beharko dira.

2.– Helburu hori gauzatzeko 1.475.000 euro jarriko dira.

3.– Deialdi hau lehiaketa-sistemaren bidez ebatziko da.

2. artikulua.– Onuradunak.

1.– Diru-laguntzak eta laguntzak esleitzeko eta, hala behar bada, ordaintzeko, ezinbestekoa izango da amaituta egotea itzulketa- edo zehapen-prozedura oro, zehazki, Euskal Autonomia

Erkidegoko Administrazio Orokorrak edo horko erakunde autonomoek emandako izaera bereko laguntza edo diru-laguntzengatik hasitakoak eta artean izapidetzen ari direnak.

2.– Agindu honen bidez araututako diru-laguntzen edo laguntzen deialdietan inork ezingo du parte hartu baldin eta zigor-arloko zehapena edo administrazio-zigorra dela-eta diru-laguntzak edo laguntzak jasotzeko aukera galdu badu edo horretarako ezgaitzen duten legezko debekuen eraginpean badago, sexua diskriminatzeagatik zigortutakoak barne, beti ere otsailaren 18ko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunaren 4/2005 Legearen arabera eta kasuan kasuko zigorrak ezarritako epean.

3. artikulua.– Diruz lagundu daitezkeen jarduerak.

1.– Lankidetza-proiektuak segidan aipatzen diren multzo hauetako baten edo gehiagoren ingurukoak izan daitezke (aurrekontuak multzo bakoitzerako esleitzen duen diru-zenbatekoa ere zehazten da):

1.1 multzoa. Atzerriko hizkuntzekin lotutako prestakuntza-jarduerak eta beste eremu batzuetako prestakuntza-ikastaroak. Epea: 2012ko ekainaren 25etik 2012ko irailaren 30a bitartekoa. Zenbatekoa: 550.000 euro.

1.2 multzoa. 2012-2013 ikasturtean atzerriko hizkuntzen inguruan egingo diren prestakuntza-jarduerak. Zenbatekoa: 500.000 euro.

2. multzoa: era honetako prestakuntza-jarduerak: unibertsitateaz kanpoko hezkuntza-etapetan irakasleek izan beharreko lanbide-gaitasunak garatzeko prestakuntza-jarduerak, salbu heziketa-zikloetakoak; indarrean den curriculumarekin zerikusia duten jarduerak, eta Hezkuntza Sailaren jardute-eremuarekin lotutakoak. Epea: 2012-2013 ikasturtea (2012ko uztailaren 1etik 2013 ekainaren 30a arte). Zenbatekoa: 350.000 euro.

3. multzoa: irakasleak etengabe prestatzeko jarduera osagarriak. Helburua da gai didaktiko eta pedagogikoetan eguneratzea Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak bultzatzen dituen eremuko gaietan. Zenbatekoa: 75.000 euro.

2.– Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak sustatutako jarduera-esparruak eta lau multzoetako jarduera-esparruen ezaugarriak I. eranskinean daude zehaztuta.

3.– VII. eranskinean zehazten da zeintzuk diren 1. eta 2. multzoetako jarduera zehatzak eta jarduera horiek gauzatu ahal izateko gehien eragiten duten baldintzak; eta lehentasunezkotzat joko dira. Erakunde eskatzaileek baldintza zehatzak eskuratu ahal izango dituzte lurralde-ordezkaritzetan eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren internet orrialdean (http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net). Dena dela, erakundeek jardute-eremuetako beste jarduera batzuk ere proposatu ahal izango dituzte, baldin eta I. eranskinean adierazten den egitura errespetatzen badute. Multzo guztiak aztertzerakoan, lehenengo VII. eranskinean zehazten diren proposamenei erreparatuko zaie eta gero entitateek proposatutakoei.

4. artikulua.– Eskabideak aurkeztea.

1.– Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Pedagogia Berrikuntzarako Zuzendaritzan aurkeztu beharko dira deialdi honetan parte hartzeko eskabideak, edo, bestela, Zuzenean zerbitzuan (Bilboko Kale Nagusiko 85. zenbakian, 48011 posta-kodean; Donostia-San Sebastiángo Andiako 13. zenbakian, 20003 posta-kodean, edo Vitoria-Gasteizko Ramiro de Maeztuko 10. zenbakiko beheko solairuan, 01008 posta-kodean) edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta

Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluak adierazitako tokietako edozeinetan.

2.– Eskabideak aurkezteko hilabeteko epea egongo da, agindu hau EHAAn argitaratu eta biharamunetik aurrera.

3.– Eskabidearekin batera, diru-laguntza zein jardueretarako eskatzen den, jarduera horietako bakoitzaren datuak aurkeztu behar dira; III eta IV. eranskinetan zehazten dira datu horiek.

4.– Era berean, agiri hauek ere aurkeztu beharko dira:

– IFZren fotokopia.

– Zerga-obligazioak beterik izatea egiaztatzeko beharrezkoak diren agiriak.

– Prestakuntza-jarduerak burutzeko baimena duela egiaztatzen duen agiria (Ekonomia Jardueren gaineko Zergan alta hartuta egotea prestakuntza-jardueren atalean).

5.– Erantzukizunezko adierazpena, egiaztatzen duena ez interesdunak ez duela legezko debekurik, diru-laguntza edo laguntza publikorik lortzeko aukera kentzen dionik, sexua bereiztearren izandakoak barne, beti ere Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera.

6.– Diru-laguntzak lortzeko eskabideak oso-osorik betetzen ez badira, edo eskabidearekin batera nahitaezko dokumentazioa aurkeztu ezean, interesdunari eskatuko zaio hamar egunetan akatsa zuzentzeko edo nahitaezko agiriak aurkezteko. Hori egin ezean, eskaerari uko egin diola ulertuko dugu. Administrazioak, dena dela, eskaeraren gaineko ebazpena eman eta jakinarazi egin behar du berariaz, Herri Administrazioaren Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 71.1 eta 42.1. artikuluetan araututakoaren arabera.

5. artikulua.– Laguntzak kudeatzeko organoa.

Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzak kudeatuko ditu agindu honetan aurreikusitako diru-laguntzak.

6. artikulua.– Ebaluazio-batzordea.

1.– Batzorde batek aztertu eta ebaluatuko ditu proposamenak; Hezkuntza Berriztatzeko zuzendaria edo hark horretarako ordezko izendatzen duena izango da batzorde horretako buru, eta beste hauek kide: Hezkuntzako ikuskatzaile nagusia, lurralde-ordezkaritzetako Hezkuntza Berriztatzeko arduradunak, Irakasleen Hobekuntzarako arduraduna eta, gehienez ere, beste hiru funtzionario Hezkuntza Berriztatzeko zuzendariak izendatutakoak; horietako bat Berritzegune bateko zuzendaria izango da.

2.– Batzorde horrek proiektuak era egokian baloratzeko beharrezkotzat jotzen dituen txosten teknikoak eskatu ahal izango ditu, eta aldaketak proposatu ere bai, aurkeztutako proiektuek ezarritako helburuak betetzen dituztela hobeto bermatzearren.

3.– Batzordeak proposamenak Hezkuntzako sailburuordeari helaraziko dizkio.

7. artikulua.– Diru-laguntzak emateko irizpideak.

1.– Lankidetza-proiektuak eta, ondorioz, 1. eta 2. multzoetan eskaintzen diren prestakuntza-jarduerak hautatzeko, V eranskinean aipatzen diren irizpideei eta baremazioari jarraituko zaie. Horretarako, jarduerek bakar-bakarrik jaso ahal izango dute diru-laguntza baldin eta hautaketa– eta

balorazio-irizpideak aplikatuta, V eranskineko baremoan 50 puntu edo gehiago lortzen badituzte eta baremoko atal guztietan % 20 baino gehiago lortzen badute.

2.– Lankidetza-proiektuek 3. multzoari dagozkion jarduerak proposatzen badituzte, horiek hautatu eta ekonomiaren aldetik baloratzeko VI eranskinean aipatzen diren irizpideei eta baremazioari jarraituko zaie. Horrela, laguntzak lortzeko, jarduerek 50 puntu edo gehiago lortu beharko dute derrigorrez VI. eranskinean jasotzen den baremoan; bestalde, baremo horretako bost puntuetan, % 20tik gorako puntuazioa lortu beharko dute.

8. artikulua.– Diru-laguntzen zenbatekoa.

Onartutako aurrekontu garbiaren % 100 esleitu ahal izango die hautatutako proiektuei Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, III. eranskineko gastuen kontzeptuak kontuan hartuz.

9. artikulua.– Diru-laguntzen bateragarritasunak.

Diru-laguntza hauek jasotzea eta beste edozein laguntza jasotzea bateragarriak dira, nahiz iturri publikoetatik nahiz pribatuetatik jaso laguntza. Alabaina, xede bererako lortu diren diru-laguntzen zenbatekoa, guztira, kostu osotik gorakoa bada, dagokion neurrian murriztuko da deialdi honetan emandako diru-laguntzaren zenbatekoa.

10. artikulua.– Ebazpena.

1.– Hezkuntzako sailburuordeak, Ebaluazio Batzordearen proposamenak ikusi eta gero, 3. artikuluko multzoei buruzko ebazpenak emango ditu; sei hilabeteko epea izango du horretarako, Agindu hau EHAAn argitaratzen denetik aurrera. Ebazpen horiek jakinarazi egingo zaizkie interesatuei eta EHAAn argitaratuko dira, mundu guztiak izan dezan horien berri.

2.– Eskatutako baldintzak betetzen dituen proposamenik ez badago, edo proposamen gutxiegi, eta horren ondorioz agindu honen 3. artikuluan aipatutako multzoetakoren bati dagokion dotazioa agortzen ez bada, Ebaluazio Batzordeak bere esku izango du proposatzea soberakinak beste multzoetako edozeini ematea; betiere, gehikuntza jaso duen multzoari buruzko ebazpena eman gabe badago, eta gehikuntza hori Agindu honek ezarritako betekizunak betetzen dituzten kontzeptu lagungarriak gauzatzeko erabiltzeko bada. Ebaluazio Batzordeak proposatuko du soberakinok nola erabili, baina behar bezala arrazoitu beharko du proposamena.

3.– Baldin eta epe horren barruan ez bada ebazpenik ematen, eskabideak ukatu egin direla jo ahal izango da, Herri Administrazioen Araubide Juridiko eta Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 43. artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako.

4.– Hezkuntzako sailburuordeak deuseztatu egingo ditu diru-laguntzak, beti ere Agindu honen 15. artikuluan xedatzen den prozedurari jarraituz, baldin eta, matrikula egiteko hasierako epea igarota, jarduerak ez baditu betetzen proiektuko plazen % 40. Halakoetan, Hezkuntza Sailak jakinarazpena egingo die proiektu horien erakunde onuradunei.

5.– Ebazpenak ez du administrazio-bidea amaituko, eta haren aurka gora jotzeko errekurtsoa jarri ahal izango zaio Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuari hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

11. artikulua.– Erakunde onuradunen betebeharrak.

1.– Eman zaien diru-laguntza onartuko dute. Hain zuzen ere, baldin eta, deialdiaren ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu ondoko egunetik hasi eta hamabost eguneko

epean, onuradunek ez badiote berariaz eta idatziz uko egiten diru-laguntzari, onartu egin dutela ulertuko da.

2.– Laguntza zertarako eman den, horretarako erabili beharko dute, ez beste ezertarako.

3.– Kontrol Ekonomikoko Bulegoak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak, beren eginkizunetan dihardutela, eskatzen dieten informazioa, deialdi honen kontura eskuratutako diru-laguntzen gainekoa, eman beharko diete.

4.– Beste edozein administrazio, erakunde publiko edo pribatuk helburu bererako emandako diru-laguntzak, laguntzak, dirua edo baliabideak eskuratuz gero, horren berri ematea Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzari.

5.– Laguntza ematerakoan kontuan izan zen dena delako egoera objektibo edo subjektiboa aldatu baldin bada, horren berri ematea Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzari.

6.– Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailarekin lankidetzan jardutea ikastaroetara eta/edo prestakuntza-jardueretara joan diren irakasleen jarraipena egiten eta ebaluatzen eta prestakuntza-jarduera bera orokorrean ebaluatzen.

7.– Jarduerak aurrera eraman, horien jarraipena eta ebaluazioa egitearen ondorioz sortzen diren datuak Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari ematea, administrazio-kudeaketako behar dituenean.

8.– Emakumezko eta gizonezkoen arteko benetako berdintasunaren inguruan indarrean den arautegia betetzea.

12. artikulua.– Diru-laguntzak ordaintzea.

4.– Diru-laguntzak zatika ordainduko dira, bi epetan:

a) Lehenengo epea, diruz lagundutako guztiaren % 80koa izango da, eta ordaindu ere ikastarorako onartutako eskabideak kontuan hartuta, prestakuntza-jarduera guztiak egingo direla bermatzen denean ordainduko da.

b) Bigarren epean, gainerako % 20 ordainduko da, 13. artikuluan adierazitako dokumentazioa jaso eta gero. 1.1 multzo honetako jardueretarako, bigarren ordainketa hori 2012. urtean egingo da, eta beste multzoetakoak, berriz, 2013an ordainduko dira.

13. artikulua.– Diru-laguntzak justifikatzea.

1.– Diruz lagundutako ekintza bakoitza amaitu eta hamabost eguneko epearen barruan, erakundeak honako hau bidaliko dio Irakasleen Hobekuntza Zerbitzuari: jardueraren gaineko txostena edo akta; bertan jaso beharko dira jardueraren garapenari buruzko balorazioa, ikasle bakoitzaren parte-hartze, inplikazio eta aprobetxamendu mailari buruzko txostena eta, azkenik, parte hartu duten irakasleen zerrenda (parte-hartzearen portzentajea adierazita) eta gaitzat jotakoena.

2.– Burututako jarduera bakoitza bukatu eta hilabeteko epearen barruan, erakundeak Irakasleen Hobekuntza Zerbitzuari bidaliko dizkio ikastaroan erabilitako ikasmaterialen kopia: apunteak edo inprimaturiko materiala, softwarea, aurkezpenak, tresnak eta ariketak, etab.

3.– Erakunde esleipendunak azken jarduera burutu eta hiru hilabeteko epearen barruan, erakundeak, dagokion organoaren bitartez, jarduera-programa guztiaren likidazio ekonomikoaren txostena aurkeztu behar du, eta, hor, gastuak, diru-sarrerak eta diru-sarreren jatorria zehaztu behar

ditu. Erakunde onuradunak, emandako diru-laguntzaz egindako gastuak egiaztatzeko jatorrizko ziurtagiri, faktura eta horien baliokide edo ordezko izan daitezkeen gainerako agiriak jarri behar ditu Administrazioaren eskura.

4.– Ezarritako helburuak noraino bete diren egiaztatze aldera, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak kasuan-kasuan ezarritako ebaluazio-prozeduren pean egongo dira jarduerak, erakundeek ezarrita dauzkaten barruko ebaluazio-tresnak direnak direla.

14. artikulua.– Laguntza emateko baldintzak aldatzea.

Laguntza ematerakoan kontuan hartu ziren baldintzak aldatzen badira, laguntzaren helburua betetzen bada, edo beste edozein erakunde publikok zein pribatuk diru-laguntza eman badu, laguntza emateko ebazpena ere alda liteke horren ondorioz, beti ere diru-laguntzaren arauan jasotzailea izateko ezarri ziren betekizunak zaindurik.

15. artikulua.– Ez-betetzeak.

Onuradunak itzuli egin beharko ditu esleitutako diru-zenbatekoak eta are dagozkiokeen legezko interesak ere, honelakoren bat gertatuz gero: diru-laguntza zein helburu zehatzetarako eskatu zuen eta esleitu zitzaion, horretarakoxe ez erabiltzea; diru-laguntza esleitzeko arrazoi izan zen jarduera ez gauzatzea; diru-laguntza berak eskabidean adierazitako helburu jakin eta zehatzetan erabili duela ez justifikatzea; edo, oro har, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuaren VI. tituluan (1998ko urtarrilaren 19ko EHAAn argitaratu zen), Agindu honetan edo diru-laguntza esleitzeko ebazpenean ezarritako betebeharrak ez betetzea. Eta itzuli, abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan horretarakoxe ezarritako jardunbideari jarraituz itzuli beharko ditu (Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren kontura esleitutako diru-laguntzak itzultzeko jardunbidearen eta diru-laguntza horien bermeen araubide orokorra ezarri zuen Dekretu horrek, eta, orobat, aurrekontu orokorrak kudeatzen laguntzen duten erakundeen betekizun, araubide eta betebeharrak arautu zituen). Hala ere, bidezko beste ekinbide batzuk ere erabili ahal izango dira onuradunaren aurka. Bestalde, horrela itzulitako diru-laguntza guztiak diru-sarrera publikotzat joko dira, legezko ondorio guztietarako.

16. artikulua.– Datuak babestea.

Deialdi hau kudeatzean jasotzen diren datu pertsonalak «entidadeak-garatu2011» izeneko fitxategi batean sartuko dira, eta parte-hartzaileek baimena ematen dute datuok landu eta argitaratzeko; izan ere, helburua da (diru-laguntzen) deialdi hau kudeatzea eta horren garapenaren berri ematea deialdi honetan parte hartzen duten lagun guztiei, beti ere lege hauek kontuan hartuta: abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa, Datu Pertsonalak Babestekoa, eta otsailaren 25eko 2/2004 Legea, Titulartasun Publikoko Datu Pertsonalen Fitxategiei eta Datuak babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzkoa. Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritza izango da fitxategiaren arduradun. Datuetara sartzeko, horiek zuzentzeko, ezerezteko eta horien aurka egiteko eskubideak betetzeko, Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzara jo beharko da, honako helbide honetara, hain zuzen ere: Donostia kalea 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz.

Era berean, prozedura honetan parte hartzen duten erakundeek baimena ematen diote Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzari beste herri-erakunde batzuetan egiazta dezan aurkeztutako agiriak benetakoak direla.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa– Agindu honek administrazio-bidea agortzen du, eta beraren aurka, berraztertzeko errekurtsoa jarri ahal izango zaio Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuari hilabeteko epean edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian bi hilabeteko epean, agindu hau argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Bigarrena.– Agindu honetako 1. artikuluan finkatutako diru-zenbateko osoa aldatu egin ahal izango da, beti ere egin beharreko prestakuntza-jardueren kopurua kontuan hartuta eta baldin eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren beste diru-laguntza programa batzuetako aurrekontu-zuzkidurak agortzen ez badira. Dena dela, diru-laguntzak ebatzi aurretik egin beharko da hori, eta Hezkuntzako sailburuordeak ebazpena eman eta EHAAn argitaratu beharko du.

Hirugarrena.– Prozedura-gaietan Agindu honek aurreikusten ez duen guztirako azaroaren 26ko 30/1992 Legea aplikatuko da, hau da, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legea.

Laugarrena.– Agindu hau EHAAn argitaratu, eta hurrengo egunean izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko otsailaren 8a.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburua,
MARÍA ISABEL CELAÁ DIÉGUEZ.

I. ERANSKINA

MULTZOEN JARDUERA ESPARRUAK ETA -EGITURA

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak irakasleak etengabe prestatzeko zehaztutako jarduera-esparruak (hauen inguruan antolatuko dira prestakuntza-ekintzak):

- Oinarrizko gaitasunak garatzea EAEko curriculumaren arlo eta ikasgaien bidez, hezkuntza-etapa guztietarako.
- Diagnosi-ebaluazioaren emaitzak aztertu ostean ikastetxeak hobetzeko planak aurrera eramatea.
- Aniztasunari erantzutea, batera biltzeko printzipioan oinarrituta.
- Hezkuntza-premia bereziak.
- Bizikidetzako eta bakerako hezkuntza ikastetxeetan.
- Hizkuntzen metodologia eta didaktika, hirueletasuna eta eleaniztasuna, hizkuntza-proiektua lantzea, hizkuntzak modu integratuan lantzea.
- Zientzia-hezkuntza, jasangarritasuna eta ingurumena.
- Eskola 2.0 proiektua garatzea.
- Zuzendaritza eta lidergoa ikastetxeetan.
- Genero-berdintasunarekin lotutako gaien inguruko prestakuntza eta sentsibilizazioa.
- Prestakuntza irakasle berrien tutoreentzat: bigarren hezkuntzako Masterraren practicuma garatzea.

1.1 multzoa

Hemen biltzen dira atzerriko hizkuntzekin lotutako prestakuntza-jarduerak eta beste esparru batzuetako prestakuntza-ikastaroak, 2012ko ekainaren 25 eta uztailaren 30a bitartean atzerrian egiten direnak, baldin eta helburu hauetako bat badute:

- Atzerriko hizkuntzan espezialista ez diren irakasleek -Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Bigarren Hezkuntza eta Batxilergokoek- ikasleekin hizkuntza horretan komunikatzeko eta/edo klaseak emateko erabili ahal izateko hizkuntza-gaitasunak lortzea.
- Atzerriko hizkuntzetan ikastea hezkuntza-etapa guztietako arloetako edukiak.
- Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako irakasle espezialistek atzerriko hizkuntzak irakatsi eta ikasteko metodoak hobetu eta eguneratzea.
- Ospe handiko europar erakundeetan egindako ikastaroen bidez denetariko edukien eguneratze zientifiko-didaktikoa, eduki horiek ohiko jardueran erabili ahal izateko.
- Ingelesean espezializatuta ez dauden Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako, Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko irakasleak ingelesez ikasten hastea.
- Atzerriko hizkuntzetako arloetako edukiak ikastea eta atzerriko hizkuntzen hizkuntza-gaitasunak indarberritzea Hezkuntza Marko Hirueleduneko saiakuntza-proiektuak aurrera eramaten dituzten ikastetxeetako irakasleek.

1.2 multzoa

2012-2013 ikasturtean atzerriko hizkuntzen inguruan egiten diren prestakuntza-jarduerak, 1.1 multzoko helburu berak dituztenak.

2. multzoa

Multzo honetan sartzen dira arestian aipatutako jarduerak eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak zehaztu eta bultzatzen dituen jarduera-esparruekin lotutako prestakuntza-jarduera guztiak.

3. multzoa

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak sustatutako jarduera-esparruekin lotutako didaktika- eta pedagogia-gaietan eguneratzeko jarduera osagarriak. Esate baterako:

- Hezkuntzako problematika beraren inguruan dabiltzan irakasleen esperientziak trukatzeko ekintzak antolatzea, hala nola topaketak, jardunaldiak, biltzarrak eta hainbat euskarritako argitalpenak.
- Ingurune sozialarengatik egoera berezian bizi diren ikastetxe batzuetako irakasleei aholkua eta prestakuntza ematea.
- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren jarduera-esparruei eragiten dieten eta/edo haiekin zerikusia duten proiektuak, azterlanak, txostenak, ebaluazioak eta abar egitea.

II. ERANSKINA

ESKAERA ORRIA

ERAKUNDEAREN IZENA ……...…… K zenbakia: ……..…….
Helbidea: ..... Posta-kodea: ……. Udalerria……
Telefonoa:…….. Faxa: ……
Helbide elektronikoa (eremu hau nahitaez bete behar da) …….....……
Legezko ordezkaria: ……..……
Prestakuntza-ekintzen programako koordinatzailea: ……..……..
Koordinatzailearen helbide elektronikoa (eremu hau nahitaezkoa da): ……...

Honekin batera aurkezten diren agiriak:

IFK txartelaren kopia.

Zerga-betebeharrak betetzen direla egiaztatzeko dokumentazioa.

Erantzukizunezko adierazpena, egiaztatzen duena ez interesdunak ez duela legezko debekurik, diru-laguntza edo laguntza publikorik lortzeko aukera kentzen dionik, sexua bereiztearren izandakoak barne, beti ere Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera.

Alta prestakuntza-jardueretan (unibertsitate-ikastegi eta/edo—departamenduetakoak izan ezik).

III. eranskina eta IV. eranskina, eskatutako ekintzako.

Kod.	Prestakuntza-jardueraren izena	Hizkuntza	H.	Hasiera	Amaierakoa	Herria	Diru-lg (1)
	Guztira						

(1) Zer diru-laguntza eskatzen dio Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari

Tokia, eguna eta sinadura eta erakundearen zigilua

HEZKUNTZA BERRIZTATZEKO ZUZENDARIA

Deialdi hau kudeatzean jasotzen diren datu pertsonalak «entidadeak-garatu2011» izeneko fitxategi batean sartuko dira, eta parte-hartzaileek baimena ematen dute datuok landu eta argitaratzeko; izan ere, helburua da (diru-laguntzen) deialdi hau kudeatzea eta horren garapenaren berri ematea deialdi honetan parte hartzen duten lagun guztiei, beti ere lege hauek kontuan hartuta: abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa, Datu Pertsonalen Babestekoa, eta otsailaren 25eko 2/2004 Legea, Titulartasun Publikoko Datu Pertsonalen Fitxategiei eta Datuak babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzkoa. Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritza izango da fitxategiaren arduradun. Datuetara sartzeko, horiek zuzentzeko, ezerezteko eta horien aurka egiteko eskubideak betetzeko, Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzara jo beharko da, honako helbide honetara, hain zuzen ere: Donostia kalea 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz.

III. ERANSKINA

(eskabide-orri bat idatzi beharko da ekintzako)

	Kodea			Izena
Jarduera				
Entitatea				

1.- Datu ekonomikoak (guztira aurreikusitako kostua, gutxi gorabehera xehatuta)

	Kontzeptua	Zenbatekoak
A	Ikastaroak ematen dituzten langileen gastuak.	
O	Joan-etorriak eta egonaldiak	
Z	Materialen gastuak:	
D	Antolatu eta kudeatzeko besteko gastuak	
E	Jarduera gauzatzeko aurreikusitako kostua (A + B+ C+ D), GUZTIRA	
A	Erakundearen beraren ekarpen ekonomikoa	
G	Beste diru-laguntza batzuk:	
	Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari eskatutako diru-laguntza (E – F – G), GUZTIRA	

2.- Egin beharreko programaren garapena, oinarritzat hartuta Sailak VII. eranskinean adierazten diren jardueretarako planteatu dituen helburuak eta metodologia (Sailak diseinatu duen programa erakundeen esku egongo da Lurralde Ordezkaritzetan eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren Internet orrialdean: http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net). Diru-laguntza zein jardueratarako eskatu, horren programa bat aurkeztuko da, eta aurkeztu ere jarduerako programan bat; programa horrek, berriz, puntu hauek jasoko ditu:

- Programaren helburuak, hala prestakuntzakoak nola irakasle-lana hobetzekoak.
- Lortu nahi diren lanbide-gaitasunen hobekuntzak.
- Edukiak
- Landutako edukiak ikasteko eta irakasteko zein egoeratan aplikatuko diren.
- Lan-metodologia. Alderdi teorikoak eta alderdi praktikoak.
- Prestakuntza jarduera garatzeko erabiltzen diren tresna, material eta baliabide didaktikoen deskripzioa.
- Jardueran parte hartzen dutenei proposatuko zaien proposamen praktikoaren deskribapena (txostena, memoria, proiektua, etab.).

Ebaluazio-irizpideak edo -adierazleak Ebaluatzeko metodologia.

- Antolamendu-alderdiak: zein toki erabiliko den, baliabide materialak, zein dokumentazio banatuko den.
- Jarduera nori zuzentzen zaion eta plaza-kopurua.
- Zein egunetan eta epetan egingo den.

IV. ERANSKINA

(eskabide-orri bat idatzi beharko da ekintzako)

	Kodea			Izena
Jarduera				
Entitatea				

1. Txostengile izango direnak proposatzeko eta jardueraren zuzendaria zehazteko

Zuzendaria:

NAN	1. abizena:	2. abizena:	Izena	(1)	(2)	(3)	Orduak

Txostengileak (zuzendaria ez)

NAN	1. abizena:	2. abizena:	Izena	(1)	(2)	(3)	Orduak

Mendetasuna: ERAK adieraziko da erakundearen beraren langileak direnean eta EZ ERAK beste langile autonomoak edo beste erakunde batekoak direnean.
(2) Jatorria: txostengileak non lan egiten duen normalean. EAE adieraziko da Euskal Autonomia Erkidegokoa denean eta EZ EAE erkidegotik kanpokoa denean.
(3) Egoera Hizkia eta zifra adieraziko dira.

A1: unibertsitateaz kanpoko irakaslea, sare publikokoa.
A2: unibertsitateko irakaslea, sare publikokoa.
A3: bestelakoak, herri-administrazioa.
B1: unibertsitateaz kanpoko irakaslea, sare pribatukoa.
B2: unibertsitateko irakaslea, sare pribatukoa.
B3: bestelakoak, enpresa pribatua edo autonomoak.

2.- Jarduera emango dutenen curriculum laburtua.

3.- Erakundeak gaiaren inguruan egin duen ibilbidea: ikerketak, argitalpenak, eman dituen prestakuntza-jarduerak, emakumezko eta gizonezkoen berdintasunaren alde burututako jarduerak, eta abar.

V. ERANSKINA

1. ETA 2. MULTZOETAKO BAREMOA

	Barematzeko atalak	Maximoa	Guztira
1.-	**Egitura, edukiak eta metodologia**		37
	1.1.- Programako edukiak Hezkuntza, Unibertsitate eta Sailak proposatutakoaren arabera banatu eta egokitzea	5	
	1.2.- Proiektuan zehazten den jardueraren tenporizazioa eta egitura Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak proposatutakora egokitzea.	5	
	1.3.- Metodologia aktiboak eta parte hartzaileak erabiltzea, oinarrian teknologia berriak eta eskola 2.0n azaltzen diren tresnak erabiltzea sustatzen dutenak.	5	
	1.4.- Programako metodologia-proposamenen egokitasuna: lan-metodologia (alderdi teorikoak eta alderdi praktikoak), ebaluazio-metodologia (ebaluazioaren planteamendua, irizpideak eta adierazleak)	5	
	1.5. Jardueran parte hartzen dutenei planteatzen zaien proposamen praktikoaren zehaztasun- eta egokitasun maila (txostena, memoria, proiektua, etab.)	5	
	1.6.- Lanbide-proiekzioa eta ikasgelan aplikatu ahal izatea: zehaztea zelan hobetu lortu nahi diren lanbide-gaitasunak eta jorratzen diren edukiak ikasi eta irakasteko egoerak.	5	
	1.7.- Prestakuntza jarduera garatzeko erabiltzen diren tresna, material eta baliabide didaktikoen egokitasuna.	5	
	1.8.- Programako edukiak genero-perspektibara egokitzea	2	
2.-	**Giza-, material- eta antolamendu-bermeak**		25
	2.1.- Erakundearen balorazioa, aurkezten den alorreko prestakuntza-jarduerei buruzkoa: ikerketak, argitalpenak, prestakuntza-jarduerak	8	
	2.2.- Antolamendu-baliabideen eskuragarritasuna (saiogileen kopurua, erakundearenak eta/edo kanpokoak, jarduera garatzeko lokalak, baliabide teknikoak,..)	7	
	2.3.- Proposaturiko saiogileen egokitasuna/ospea	10	
3.-	**Eskatutako diru-laguntzaren zenbatekoa, Sailak aurreikusitako aurrekontuarekin alderatuta**		18
4.-	**4 Aurreko lankidetzen balorazioa (kontuan hartuko dira hemen ikastaroetara joandako irakasleen satisfazio maila eta kudeaketa administratiboa)**		20
	4.1.- Aurreko 3 urteetan 4. baremoak izan duen balorazioa	5	
	4.2.- Erakundeak aurreko bi deialdietan emandako ikastaroetan parte hartu duten irakasleek lortutako puntuazioaren batez bestekoa	5	
	4.3.- Erakundeak egindako administrazio-kudeaketa orokorra (aktak, txostenak, dokumentazioa eta gainerakoak entregatzea, etab.)	5	
	4.4. Erakundeak egindako kudeaketa orokorra (ikastaroa antolatzea, sortutako arazoei emandako irtenbideak, etab.)	5	
Guztira			100

VI. ERANSKINA

3. MULTZOKO BAREMOA

	Barematzeko atalak	Maximoa
1.-	Hizkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak sustatutako jarduera-esparruekin dituzten harremanak.	35
2.-	Proposatutako jardueren egokitasuna	25
3.-	Giza baliabideak, baliabide materialak eta antolaketa-baliabideak.	20
4.-	Eskatutako diru-laguntzaren zenbatekoa.	18
5.-	Programako edukiak genero-perspektibara egokitzea	2
	Guztira	100

VII. ERANSKINA

Kod	Ikastaroak	(1)	(2)	(3)
	1. MULTZOA			
701	Language for teachers (B1) (Homestay)	10	I	5
702	Language for teachers (B1) (Hall of residence)	10	I	5
703	Language for teachers (B2) (Homestay)	10	I	5
704	Language for teachers (B2) (Homestay)	10	I	5
705	Language for teachers (B2) (Hall of residence)	10	I	5
706	Language for teachers (B2) (Hall of residence)	10	I	5
707	Language for teachers (C1) (Homestay)	10	I	5
708	Language for teachers (C1) (Hall of residence)	10	I	5
709	Language for teachers (Homestay)	10	I	5
710	Language for teachers (Homestay)	10	I	5
711	Language for teachers (Hall of residence)	10	I	5
712	Methodology of english teaching	10	I	5
713	CLIL (Hall of residence)	10	I	5
714	Language for teachers (B1) (Homestay)	10	I	5
715	Language for teachers (B2) (Homestay)	10	I	5
716	Methodology of english teaching	10	I	5
717	CLIL (Homestay)	10	I	5
718	Cours de français (B2) (Residence)	10	F	6
719	Deutschkurs (B2) (Estudentenheim)	5	A	7
720	Language for teachers (Beginners)	15	I	2
721	Language for teachers (Beginners)	15	I	3
722	Language for teachers (Beginners)	12	I	1
723	Language for teachers (A1/A2)	15	I	2
724	Language for teachers (A1/A2)	15	I	3
725	Language for teachers (A1/A2)	12	I	1
726	Language for teachers (B1)	15	I	2
727	Language for teachers (B1)	15	I	3
728	Language for teachers (B1)	12	I	1
729	Language for teachers (B2)	15	I	2
730	Language for teachers (B2)	15	I	3
731	Language for teachers (B2)	12	I	1
732	CLIL	20	I	1
733	CLIL	20	I	3
734	Cours de français (B1)	15	F	3
740	Crash course in CLIL	20	I	1
741	Crash course in CLIL	20	I	2
742	Methodology of english teaching	20	I	2
743	Methodology of english teaching	20	I	2
744	Methodology of English teaching	15	I	3
745	Methodology of english teaching	20	I	3
746	Methodology of english teaching	12	I	1
747	Methodology of english teaching	20	I	1
748	Oral skills in secondary	20	I	2
796	Estancia científica en el CERN	20	C	9
200	Language for teachers (A1/A2)	15	I	2
201	Language for teachers (A1/A2)	15	I	2
202	Language for teachers (A1/A2)	15	I	3
203	Language for teachers (A1/A2)	15	I	3
204	Language for teachers (A1/A2)	12	I	1
205	Language for teachers (B2)	15	I	3

Kod	Ikastaroak	(1)	(2)	(3)
206	Language for teachers (B2)	15	I	2
207	Language for teachers (B2)	15	I	2
208	Language for teachers (B2)	15	I	3
209	Language for teachers (B2)	15	I	2
210	Language for teachers (B2)	12	I	1
211	Language for teachers (B2)	12	I	1
212	Language for teachers (Beginners)	15	I	3
213	Language for teachers (Beginners)	15	I	2
214	Language for teachers (Beginners)	15	I	2
215	Language for teachers (Beginners)	15	I	3
216	Language for teachers (Beginners)	15	I	2
217	Language for teachers (Beginners)	12	I	1
218	Language for teachers	15	I	2
219	Language for teachers	15	I	3
220	Language for teachers	12	I	3
221	Language for teachers (B1)	15	I	3
222	Language for teachers (B1)	15	I	2
223	Language for teachers (B1)	15	I	2
224	Language for teachers (B1)	15	I	3
225	Language for teachers (B1)	15	I	2
226	Language for teachers (B1)	12	I	1
227	Language for teachers (B1)	12	I	1
228	CLIL	20	I	2
229	CLIL	20	I	2
230	ICT for language learning	15	I	1
231	ICT for language learning	20	I	2
232	ICT for language learning	20	I	2
233	ICT for language learning (on-line)	20	I	4
234	ICT for language learning (on-line2)	20	I	4
235	Methodology of english teaching	20	I	2
236	Methodology of english teaching	12	I	1
237	Oral skills in secondary (Gipuzkoa)	15	I	3
238	Cours de français	12	F	2
239	Deutschkurs (B2)	12	A	2
240	Arts and crafts	15	I	3
241	Creative english	20	I	2
242	Drama	20	I	2
243	Social sciences in english	20	I	2
244	Talk english (Bizkaia)	20	I	2
245	Talk english (Gipuzkoa)	15	I	3
246	Math in english	20	I	2
502	Working oral skills in the classroom	25	I	2
	2. MULTZOA			
010	Ahalmen kreatiboak garatzeko arte tresnak	20	E	8
011	Bestelako arte hezkuntza garatzeko estrategiak	15	E	2
012	Hezkidetzan hezten	25	E	1
013	Hezkidetzan hezten	25	E	2
014	Hezkidetzan hezten	25	E	3
015	Hezkuntza afektibo-sexuala (Haur Hezkuntza: 3-6)	15	E	1
016	Hezkuntza afektibo-sexuala (Haur Hezkuntza: 3-6)	25	E	2
017	Hezkuntza afektibo-sexuala (Haur Hezkuntza: 3-6)	20	E	3
018	Jolas heuristikoa	20	E	8
019	Nola eta noiz hitz egin sexualitateaz haurrei	15	E	1

Kod	Ikastaroak	(1)	(2)	(3)
020	Nola eta noiz hitz egin sexualitateaz haurrei	25	E	2
021	Nola eta noiz hitz egin sexualitateaz haurrei	25	E	3
022	Psikomotrizitatea eta jolasa Haur Hezkuntzaren lehenengo zikloan	20	E	1
023	Psikomotrizitatea eta jolasa Haur Hezkuntzaren lehenengo zikloan	20	E	3
024	Psikomotrizitatea eta jolasa Haur Hezkuntzaren lehenengo zikloan	20	E	2
050	Arreta goiztiarra	25	E	1
051	Arreta goiztiarra	25	E	2
052	Arreta goiztiarra	25	E	3
053	Arte hezkuntza: musikaren baliabide tekniko eta espresiboak	15	E/C	3
054	Asperger sindromea	20	E/C	4
055	Euskal haur literaturaz, zer dakigu?	15	E	3
056	Idatzizkoaren ebaluazioa Lehen Hezkuntzan	20	E	8
057	Irakurketa-idazketaren nahasmenerako software propioa	30	E	2
058	Irakurketa-idazketaren nahasmenerako software propioa	30	E	3
059	Irakurmena landu ikasteko prozesuak hobetzeko	20	E/C	1
060	Irakurmena landu ikasteko prozesuak hobetzeko	20	E/C	2
061	Irakurmena landu ikasteko prozesuak hobetzeko	20	E/C	3
062	Matematika eskuekin LHn	20	E	3
063	Técnicas de dinamización de la lectura y expresión literaria. Profundización	25	C	2
100	Ahozkotasuna lantzeko egoerak nola sortu	20	E	8
101	Arbel digital elkarreragilea eta notebook programa	30	E	4
102	Arte bisuala eta kultura bisualarekin ikasten	15	E	2
103	Behar bereziak gorputz heziketa arloan	20	E	3
104	Blogak eskolako liburutegian	20	E	8
105	Bodypercussion (Percusión corporal)	20	C	1
106	Bodypercussion (Percusión corporal)	20	C	3
107	Educación física con material reciclado	20	C	2
108	Google earth eta google maps, zientzia-hezkuntzarako tresnak.	30	E	4
109	Gorputz Heziketa 2.0	20	E	4
110	Herri dantzak gorputz heziketa eta musika arlotan	20	E	2
111	Herri dantzak gorputz heziketa eta musika arlotan	20	E	3
112	Idazketa sortzailea	20	E	8
113	Ingurumen hezkuntza lan proiektuak: zer, nola eta zertarako	25	E	2
114	Irakurketa sortzailea	20	E	8
115	Irristaketa gorputz heziketan	20	E	2
116	Irudi digitalen tratamendua arte hezkuntzan	20	E	1
117	Irudi digitalen tratamendua arte hezkuntzan	20	E	2
118	Irudi digitalen tratamendua arte hezkuntzan	20	E	3
119	Malabareak gorputz heziketan	30	E/C	2
120	Música contemporánea en el aula	15	C	3
121	Parkour: Gorputz heziketarako eduki berri bat	20	E/C	3
122	Rezikletas: recursos para la educación musical	15	C	3
123	Web 2.0 musika gelan	30	E	4
150	APQUA proiektuaren ZTG baliabideak: osasuna, bizimodua eta elikadura	24	E/C	2
151	Arte y narración visual	15	C	2
152	ADN, detective molecular	40	C	4
153	Biotecnología	40	C	4
154	Curso teórico-práctico: ADN, huella de los seres vivos	20	C	2
155	Educar para prevenir la violencia de género	15	C	1
156	Educar para prevenir la violencia de género	25	C	2
157	Educar para prevenir la violencia de género	20	C	3
158	El blog en las aulas de lenguas: utilización didáctica	25	C	4
159	Estrategias para la didáctica del diseño	15	C	2
160	Euskal Herriko inguru fisikoaren ikasketarako baliabide didaktikoak	20	E	2

Kod	Ikastaroak	(1)	(2)	(3)
161	Experiencias didácticas y creativas en la enseñanza del dibujo	15	C	2
162	Generoak beharturik gabeko orientazio pertsonal, akademiko eta profesionala	15	E	2
163	Geologiaren oinarriak	20	E/C	2
164	Irakurmena landu ikasteko prozesuak hobetzeko	20	E/C	1
165	Irakurmena landu ikasteko prozesuak hobetzeko	20	E/C	2
166	Irakurmena landu ikasteko prozesuak hobetzeko	20	E/C	3
167	Kultur ondarearen didaktika.	20	E	3
168	La creatividad en la enseñanza	15	C	2
169	Matemáticas dinámicas con geogebra	20	E/C	3
170	Matemáticas y moodle: integración de herramientas de simulación y juego	15	C	4
171	Matematika eta moodle sarrera	15	E	4
173	Mujer y música hoy	15	C	2
174	Nanotecnología: el gran reto de lo pequeño	20	C	3
176	Pneumatika	10	E	3
177	Programación en diagramas del flujo con el mini robot MOWAY	15	C	2
178	Sistema programagarriak	20	E	4
179	Ubuntu (Linux) Eskola 2.0 geletan	20	E	1
180	Ubuntu (Linux) Eskola 2.0 geletan	20	E/C	1
181	Ubuntu (Linux) Eskola 2.0 geletan	20	E	2
182	Ubuntu (Linux) Eskola 2.0 geletan	20	E	2
183	Ubuntu (Linux) Eskola 2.0 geletan	20	E	3
184	Ubuntu (Linux) Eskola 2.0 geletan	20	E	3
260	Acoso en la escuela y sus nuevas manifestaciones: estrategias educativas para el abordaje	20	C	2
261	Acoso en la escuela y sus nuevas manifestaciones: estrategias educativas para el abordaje	20	C	3
262	Adimen emozionala eta aldaketaren kudeaketa zure lanpostuan	20	E	3
263	Adoptatutako haurrak eskola inklusiboan	20	E	2
264	Adoptatutako haurrak eskola inklusiboan	20	E	3
265	Aprendizaje dialógico	25	C	2
266	Aprendizaje y servicio solidario: una propuesta para trabajar la competencia social y ciudadana	20	C	2
267	Autismo edota garapenaren nahaste orokorra duten ikasleen autonomia eta komunikazioa garatzen TEACCH	25	E/C	2
268	Autismo edota garapenaren nahaste orokorra duten ikasleen autonomia eta komunikazioa garatzen TEACCH	25	E	3
270	Banan banako tutoretza	15	E/C	1
271	Banan banako tutoretza	18	E/C	2
272	Banan banako tutoretza	18	E	3
273	Bibliotecas escolares: taller de escritura creativa	20	C	3
274	Bibliotecas escolares: técnicas de dinamización de la lectura y expresión literaria. Profundización	20	C	3
275	Bilinguismo-bikulturalismo	15	E	2
276	Bullying y Cyberbullying. Estrategias de prevención con población de riesgo en los Centros Escolares	20	E/C	1
277	Bullying y Cyberbullying. Estrategias de prevención con población de riesgo en los Centros Escolares	20	E/C	3
278	Coaching para la acción tutorial	18	C	2
279	Coaching para la acción tutorial	15	C	3
280	Desarrollo de la participación del alumnado con n.e.e. en una escuela inclusiva	15	C	2
281	Diseño de secuencias didácticas con LAMS	20	C	3
282	Dolua eta galerak	20	E/C	1
283	Dolua eta galerak	20	E/C	2
284	Dolua eta galerak	20	E/C	3
287	El éxito escolar del alumnado gitano: una realidad posible	25	C	2
288	El éxito escolar del alumnado gitano: una realidad posible	20	C	3

Kod	Ikastaroak	(1)	(2)	(3)
290	El teatro foro como herramienta para la transformación del conflicto	15	C	2
291	El teatro foro como herramienta para la transformación del conflicto	15	C	3
292	Emozioen kudeaketa ikasgelan	15	E	3
293	Eskola materialetan sexismoa antzematen ikastea	20	E	1
294	Eskola-materialetan sexismoa antzematen ikastea	20	E	3
295	Eskolara oinez	20	E	4
296	Estrategias para manejar los problemas de conducta	20	C	2
297	Euskal Herri-arkitektura.	20	E	3
298	Éxito escolar en medio desfavorecido	15	C	1
299	Éxito escolar en medio desfavorecido	25	C	2
300	Fuentes para la historia, materiales para el aula.	20	C	2
301	Gatazkak ikaskuntza-aukera bihurtzea.	20	E	3
302	Gestión emocional del aula	18	C	2
303	Giza eskubideak irakasketa: jarduera praktikoak lehen eta bigarren hezkuntzan.	20	E	1
304	Gizarte arloko klaseak emateko IKT eta web 2.0ko tresnak.	20	E	4
305	Goi mailako ikasleei erantzuna eskola inklusiboan	30	E/C	1
306	Goi mailako ikasleei erantzuna eskola inklusiboan	30	E/C	2
307	Goi mailako ikasleei erantzuna eskola inklusiboan	30	E	3
308	Hezkuntza inklusiborako gida praktikoa	15	E	1
309	Hezkuntza inklusiborako gida praktikoa	15	E	2
310	Hezkuntza inklusiborako gida praktikoa	15	E	3
311	HPBak dituzten ikasleen partaidetza garatzea, eskola inklusiboan	15	E	3
312	Ikasketa eta zerbitzu solidarioa.	20	E	2
313	Inteligencia emocional y gestión del cambio en tu puesto de trabajo.	20	C	1
314	Intervención con familias: alumnado con necesidades educativas especiales.	20	C	2
315	Kultura arteko hezkuntzaren garapena informazioaren eta komunikazioaren teknologia berrien bitartez.	30	E	4
316	La coeducación en centros multiculturales	25	C	2
317	Las matemáticas a través de la redes sociales	40	E/C	4
318	Moodle (profundización): integración de herramientas multimedia y web 2.0	20	C	4
319	Moodle: web 2.0 eta multimedia erabilera areagotzeko tresnak	20	E	4
320	Moodle: web 2.0 eta multimedia erabilera areagotzeko tresnak	20	E	4
321	Moodle: web 2.0 eta multimedia erabilera areagotzeko tresnak	20	E	4
322	Mugako adimena duten ikasleen giza eta heziketa inklusiboa	25	E	1
323	Mugako adimena duten ikasleen giza eta heziketa inklusiboa	25	E	2
324	Recursos informáticos para dar respuesta al alumnado de necesidades educativas especiales	30	C	4
325	The Grid 2: Comunicación y acceso al ordenador	20	C	2
326	Transformar los conflictos en oportunidad de aprendizaje	20	C	1
500	Moodle: utilización práctica en las escuelas oficiales de idiomas	25	C	2
501	Tics: podcastings y wikis	25	C	2
530	Didáctica de la técnica coral vocal	20	E/C	2
531	Estrategias para mejorar la competencia profesional y personal del profesor de música	18	C	3
532	La educación de la voz y del oído en la enseñanza del lenguaje musical.	20	E/C	2
533	Las TIC aplicadas a la educación musical	20	E/C	2
534	Problemas emocionales del músico en escena y claves de resolución	18	C	3
751	Bibliotecas escolares: iniciación al conocimiento y uso de las herramientas básicas 2.0	25	C	4
752	Bibliotecas escolares: iniciación al conocimiento y uso de las herramientas básicas 2.0	25	C	4
753	Bibliotecas escolares: la ilustración del cuento y del libro infantil (iniciación)	20	C	1
754	Bibliotecas escolares: la ilustración del cuento y del libro infantil (iniciación)	20	C	2
755	Bibliotecas escolares: la ilustración del cuento y del libro infantil (iniciación)	20	C	3
756	Blogak hizkuntza saioetan: erabilera didaktikoa	30	E	4

Kod	Ikastaroak	(1)	(2)	(3)
757	Oinarrizko konpetentziak garatzea esperimentazio zientifikoaren bidez: APQUA proiektua	24	E	3
758	Visión global de Abies y Abies web	20	C	1
766	Arbel digital elkarreragilea eta notebook programa	30	E	4
767	Basoaren sekretuak ikertuz	20	E	3
768	Blogak eta antzeko web 2.0 tresnak	30	E	4
769	LOVA: la ópera como vehículo de aprendizaje por competencias	15	C	2
770	Mintzamena eta ahozko elkarreragina garatu eta ahozko komunikazioa baliatu ikasteko prozesuak hobetzea	20	E	2
771	Mintzamena eta ahozko elkarreragina garatu eta ahozko komunikazioa baliatu ikasteko prozesuak hobetzea	20	E	3
772	Nuevas tecnologías en las bibliotecas escolares	20	C	1
773	Scratch 3.1	30	E	4
774	Scratch 3.1	30	E	4
791	Diez herramientas matemáticas	15	C	4
792	Blogak hizkuntza saioetan: erabilera didaktikoa	30	E	4
793	BTEK baliabide didaktiko gisa	30	E/C	2
794	Descubriendo la geodiversidad	20	C	2
795	El blog en las aulas de lenguas: utilización didáctica	25	C	4
797	Generoak beharturik gabeko orientazio pertsonal, akademiko eta profesionala	15	E	1
798	GIS libreen erabilera irakaskuntzan.	20	E	4
799	Kimika harrigarria! Nola azaldu harritzen gaituena kimika baliatuz	20	E/C	2
900	Las matemáticas de la ESO y el Bachillerato desde el punto de vista de la resolución de problemas	20	C	2
901	Matemáticas y web 2.0	20	C	2
902	Matematika 2.0: hamar erreminta	15	E	4
903	Matematika eta wiris, gelarako aplikazioak	20	E	4
904	Mintzamena eta ahozko elkarreragina garatu eta ahozko komunikazioa baliatu ikasteko prozesuak hobetzea	20	E	3
906	Trabajos prácticos en el laboratorio de física y química	15	E/C	3
916	Arazo mentalak dituzten ikasleekin eskuhartzea ikuspegi inklusibo batetik	20	E	3
917	Arqueología virtual.	20	C	2
918	Arreta falta eta hiperaktibitatea duten ikasleei erantzuna eskola inklusiboan.	30	E	2
922	Bullying y ciberbullying. Estrategias de prevención con población de riesgo en los centros escolares	20	E/C	2
923	Diseño de secuencias didácticas con LAMS	20	C	2
924	El cine documental en la clase de ciencias sociales	20	C	2
925	El éxito escolar del alumnado gitano: una realidad posible	15	C	1
926	Eskola-materialetan sexismoa antzematen ikastea	20	E	2
927	Gatazkak ikaskuntza-aukera bihurtzea.	20	E	2
928	Gipuzkoako natura-ibilbideen erabilera didaktikoa	20	E	3
929	GPS: baliabide didaktikoa / GPS: un recurso didáctico	30	E/C	4
930	Inteligencia emocional y gestión del cambio en tu puesto de trabajo	20	C	2
931	Kultura arteko hezkuntza: pentsatu, sentitu eta egin.	30	E	2
932	Live@edu: hezkuntzarako tresnak	20	E	1
933	Live@edu: hezkuntzarako tresnak	20	E	2
934	Live@edu: hezkuntzarako tresnak	20	E	3
935	Nola bidera daiteke tutore eta hizkuntza indartzeko programaren irakasleen elkarlaneko laguntza.	30	E	3
936	Pertsonekin lanean	25	E	1
937	Pertsonekin lanean	25	E	2
938	Pertsonekin lanean	25	E	3
939	Posibilidades didácticas de las fuentes orales en las aulas	20	C	2
940	Prevención de conflictos interculturales en el aula	25	C	4
941	Procesos miofuncionales y alimentación en parálisis cerebral.	20	C	2
942	Salud mental: todos somos parte del tratamiento (escuela, familia, sociedad)	20	C	2

Kod	Ikastaroak	(1)	(2)	(3)
943	Zientziaren aplikazioak teknologian: eraikin bioklimatikoak	20	E	3
944	Zeinu-hizkuntza - 2 maila	15	E	2
970	Herramientas web 2.0 para la enseñanza de adultos	30	C	4
980	Euskera: EEMBaren arabera euskeraren B2/C1 mailetako ebaluaketa eta irakaskuntza	20	E	2
990	Percusión corporal	15	C	1

(1) Postu kopurua

(2) Hizkuntza:
E = Euskara, C= Gaztelania, E/C= Euskara eta gaztelania, I=Ingelesa, A= Alemana, F= Frantsesa

(3) Lekua:
1= Araba/Álava, 2= Bizkaia, 3= Gipuzkoa, 4= On-line; 5= Erresuma Batua/ Irlanda, 6= Frantzia, 8=EAE ;
9= Suiza